

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Altsasuko enplegu agentzi berria ekainean irekiko da

Lehengoa Bidezainen Etxean kokatuko da, eta irekiera NLko alde zurreko hitzordu sistemaren ezarpenarekin batera egingen da

Osteguna, 2019.eko otsailak 28

Altsasuko enplegu agentzia berria García Ximenez plazan duen egungo kokapenetik Iruña Hiribideko lehengo 'Bidezainen Etxera' aldatuko da maiatzaren bukaeran, eta ondorioz, ekainaren hasierako egunetatik aurrera, jendaurreko arreta bulego berrietan emango da. Irekiera Nafar Lansareko (NL) alde zurreko hitzordu sistemaren ezarpenarekin batera egingen da.

Kokapen berriak esparru gehiago izanen ditu langabeen formakuntzarako, enpresen arretarako eta hautaketa prozesuak egiteko, pertsoneri enpleguari buruzko tramite eta kudeaketak egiteko autonomia handiagoa emango dien ordenagailuz hornituriko esparru berri batekin batera. Halaber, NLk 47.000 euro inguru aurreztuko ditu urtean alokairuen ordainketan, eraikin berria Nafarroako Gobernuaren baita.

Instalazioen hobekuntza eta alokairuei dagokien aurrezkoa dakartzen birmoldaleta hau aurrera ateratzeko, NLk, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (Modernizazio Plana) kofinantzatuta, 658.650 euro bideratuko ditu obretara. Zenbateko honi beste 20.000 euro gehitu behar zaizkio hornidura, telekomunikazio, altzari eta lekualdatze gastuetarako.

Nafar Lansareko (NL) kudeatzaile Paz Fernándezek eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) eskualdeko zuzendari María Ángeles Montesek, Altsasuko alkate Javier Ollorekin batera, Arqyme Barricarte y San Román C.P. estudioaren arkitektura-proiektuan oinarrituta Construcciones Maldadía S.L. enpresari esleitu zaizkion obrak martxoan onen dabilzala egiaztatu dute.



Ezkerretik eskuinera, María Ángeles Montes, Paz Fernández, EEZPko ordezkaririk Altsasuko enplegu agentzian Elena Larumbe eta Altsasuko Enplegu Agentziako arduradun Miguel Ángel Jorge.

NLko zuzendari kudeatzaileak adierazi duenez, agentzia berri hau izanen da, urtarrilean Burlatan inauguratu zen Iturrondoko agentziarekin batera abiarazitako arreta-eredu integrala ezarriko duen bigarrena. Zentroak enpleguaren aldeko politika aktibo guztiak bilduko ditu, eta Altsasukoaren kasuan, baita formakuntza eta enpresei arreta egiteko baliabide gehiago ere.

“Tramite bulegoaren kontzeptutik, lan merkatuaren errealitatearen arabera lan aktibazio, formakuntza eta orientazioaren eredura igarotzeko, nahitaezkoa da gaitasunak etengabe egokitzea”, azaldu du Paz Fernándezek, NL ezartzen ari den herritarrentzako arreta eredu pertsonalizatua gogoratuz.

Obrak eta instalazioak

Agentzia 11.832,48 metro koadroko partzela batean kokatuko da; lursail horretan, Suhiltzaileen eraikina, Foruzaingoaren eraikina, heliportu bat eta Obra Publikoen biltegiak ere badaude. Obrak azaroan abiatu eta martxoaren hondarrean bukatuko dira. Lehengo Bidezainen Etxeko barneko aldea egokituko da, egitura aldatu gabe.

Esparrua partekatuko dute NLk (lan aktibazioa, enplegu eskaintzak eta formakuntza) eta SEPEk, prestazioak eta subsidioak kudeatzeko.

Zehazkiago esanda, beheko solairuko 183,35 metro koadrotan jardungo da: SEPErentzat gordetako gunea (22,3 metro koadro bulegorako, eta beste 18 metro koadro itxaron-gelarako), NL-NEZen gunea (37 metro koadro bulegorako, eta 18 metro koadro itxaron-gelarako), eta horiez gain, komuna, atariak, erabilera anitzetarako gela bat, areto bat, bi zuzendaritza-bulego eta orientatzaile batentzako beste bulego bat ere izanen dira.

Instalazio berriei esker, arreta hobetu ahalko da. Horrez gain, langabeek “wifi gunea” erabili ahalko dute tramiteak on line egiteko eta lan-bilaketari, ikastaroetan izena emateari eta abarri lotutako zenbait kudeaketa era autonomoan egiteko.

Bestalde, lehenengo solairuak, 188 metro koadro inguruko azaleran, NLko esparru hauek bilduko ditu: itxaron-gela, bi bilera-gela, formakuntza-gela bat, artxiboa eta biltegia, eta bi bulego. Esparru hauen bitartez, NLk enpresentzako zerbitzua hobetu nahi du, arreta hobea eman eta langileak hautatzeko prozesuetarako tokia eskainiz. Egungo agentziak bulego bakarra dauka. Areto horietan, orobat, taldeko ekintza eta formakuntza-jarduera gehiago nahiz gaitasun profesionalak eta pertsonalak garatzeko jarduera gehiago egin ahalko dira. Bigarren solairua hutsik geldituko da, etorkizunean zabalkuntzak egin behar badira ere, eta agentziak azkenik, aparkaleku handiagoa izanen du.

Zerbitzu gehiago eta hobeak emateko instalazioak hobetzearekin batera, agentzia joan-etorriak saihesteko neurriak hartzen ari da, ahal den neurrian, dokumentazioa posta elektronikoko bidez trukatzeko eta tramitazioa Interneten, mugikorrerako aplikazioen eta telefonoaren bidez egiteko aukera bultzatuz, NLren estrategiaren barnean.

Langabezia murrizteko intentsitate handiagoa

Altsasuko agentziak 838 langabe erregistratuak zituen 2018aren bukaeran, aurreko urtean baino % 7,8 gutxiago (71 pertsona gutxiago) eta krisia gorengo mailan zegoen 2013. urtean baino % 46,9 gutxiago (741 langabe gutxiago). Hartara, 2013-2018 epealdian, langabeziaren jaitsiera askoz ere nabarmenagoa (10 puntutik gora) izan da eskualde honetan Nafarroa osoan baino, komunitateko langabeziaren beherakada % 36,2koa izan baita.



Paz Fernández, María Ángeles Montes, Elena Larumbe, Miguel Ángel Jorge, Altsasuko alkate Javier Olló, Comal enpresa eraikitzaileko eta Nafarroako Gobernuko Ondare atalako langileak, eta Arkitektura taldekoak.

2018an, Altsasuko eremuan, NLk elektrizitatea, akaberak, pintura eta bestelako jardueri buruzko 11 ikastaro antolatu zituen 177 ikasleren parte-hartzeaz. Sunsundegui eta Aldakin enpresei erantzunez gauzaturiko formakuntza nabarmendu behar da, beste hainbat jardueraren artean, baita [ERSISI](#) eremu sozialeko I+G+b programan parte hartu zuten pertsoneri eskainitako garbiketari buruzko formakuntza ere.

Enpresa hauekiko eta bestelakoekiko lankidetzak langileen gaikuntza hobetzen eta profil berriak txertatzen laguntzen du. Adibidez, Sunsundegui ehun bat langile kontratatzea aurreikusia du.

Halaber, bulego honek 133 entitate publikoren eta 234 enpresa pribaturen 367 lanpostu kudeatu zituen.

Lurralde garapenaren arloan, agentziak Sakanako Garapen Planean eta eremuko Behatoki Sozioekonomikoan parte hartzen du, tokiko enpresari eta eragileekiko harremanei eutsiz.

2019rako, enplegu bulego honetan, industriarako balio anitzeko langileen formakuntzarako, soldaduran trebatzeko zein giltzarrizko gaitasunak eta alfabetizazio informatikoa hartzeko ikastaroak antolatzea aurreikusi da. Halaber, lan orientazioa eta aktibazioaren barnean, alderdi pertsonalei eta bilaketa-tresnei buruzko saioak eta tailerrak eskainiko ditu.